

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko uztailaren 15a. VIII. urtea. 2.258. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Kirola eta musika bat eginik biharko I. Skate Festan

Skatelariak 12:00ean bilduko dira Tolosako Usabalgo pistan; Gargantas desgarradas eta Lobo Electricok jarriko dute musika ◊2

Hiru gazte epaitu dituzte Tolosako Korazonisten elizan sartzeagatik

Atzo izan zuten epaiketa, Donostian; «desobedientzia larria» egotzita 10 hilabeteko espetxe zigorra eskatu du fiskaltzak ◊3

Tolosa&Co merkatari elkarteak webgune berria abiarazi du

Taldeko kideek barne komunikaziorako tresna berria dute; euskarazko edukiak uda bukaerarako izango dituzte prest ◊3

Baserriko produktuak nagusi, Elduaingo Kontsejun

Duela hilabete inguru zabaldu zuten berriz ere, jatetxea; paisaia ederra eta bertako produktuak ditu ezaugarritzat ◊6



→ **Datorrenari begira, Alegian.** Atzo arratsaldean bota zuten Karmen jaiak iragartzeko suziria, baina aurretik, jubilatuek eta hurrek ekitaldi asko izan zituzten; txikienek Kulkiren jokoak izan zituzten, esate baterako. Gaur ere ekitaldi asko daude festak behar bezala ospatzeko: pilota partidak, haur jaialdia, kontzertuak... ◊5



Muñazabal
MUEBLES - ALTZARIAK

San Ignacio, 2 • 20400 TOLOSA
tel/fax : 943 65 17 61



logelak • liburutegiak • sofak • koltxoak • neurriko altzariak • sarrerak • sukaldeak • dendatako altzariak • etxebizitza reformak • proiektuak ...



Pasa den martxoaren 26an inauguratu zuten Tolosako skate pista. I. URKIZU

Skate-a eta kontzertuak izango dira nagusi Tolosako I. Skate Festan

Arratsaldeko skate txapelketan, hiru maila banatuko dituzte izena ematen duten parte hartzaileen artean

I. Urkizu

Lehenengo aldiz, eta egun osoz, skate zaleek euren festa izango dute bihar, Tolosan.

Tolosako Skate taldeak antolatuta, eta Tolosako Udalaren laguntzaz, I. Skate Festa, Usabal kiroldegiko skate pista berrian izango da.

Eguerdiko 12:00ak aldera hasi-

ko dira egitarauaren barruko ekitaldiak. Horrela, 14:00ak bitarte, skate askearen tartea izango da. Norberak bere aldetik, pistarekin lehen kontaktua izango du, eta egiteko gai den abileziak erakutsi ahal izango ditu.

14:00etan, bazkariari egingo diote lekua. Parrillada egingo dute antolatzaileentzat eta arratsaldean jokatu den skate txapelketako parte hartzaileentzat. Norgehiagokan parte hartu nahi duenak, aurrez izena emateko aukera izango du Nimbin dendan; egunean bertan ere izena eman ahal izango da.

Arratsaldeko 16:00ak inguru-

an emango diote. Hiru maila banatu dituzte antolatzaileek. Alde batek, 14 urtetik gorakoak arituko dira skate pistan. Era berean, 14 urtez azpiko gaztetxoek ere euren maila izango dute. Azkenik, neskek arituko dira. Maila hauetarako bakoitzean irabazle suertatzen denak, materiala eta 500 euro jasoko ditu sarritzat.

Egunarekin amaitzeko, sari banaketaren ondoren, 20:30ak inguruan, musika izango da nagusi. Gargantas desgarradas eta Lobo Electrico taldeen kontzertuak izango dira. Barra bat jarriko dute, eta ateratzen den dirua skate pistan modulu berriak jartzeko erabiliko dute.

Getaria-Tolosak aurreikuspenak bete zituen

Gipuzkoako Traineru Txapelketa erraztasunez irabazi zuten, Donostiako estropadan

I. Urkizu

Itsaso txarrari aurre eginez, eta Zumaia neskek baino hamazazpi segundo gutxiagorekin, Donostiako uretan jokatu zen Gipuzkoako Traineru Txapelketa irabazi zuten, herenegun, Getaria-Tolosako neskek.

Bi txandatan banatu zuten estropada; lehen txandan, Hondarribia eta Orioko traineruak aritu ziren, eta bigarrenean, berriz, San Juan, Zumaia eta Getaria-Tolosako faboritoek egin zuten arraunean.

Itsasoaren aurka

Donostiako arraunketa eremuan, itsaso harroa eta haize handia zebilen pasa den asteazkenean, eta arraunlariak ahalegin handia burutu behar izan zuten estropada amaitzeko.

Hain zuzen ere, bigarren txandan, hasiera ematea kostatu zitzaizkien. Izan ere, Getaria-Tolosak eta San Juanek euren ontziak ir-

teera puntuan zuzen jartzeko arazoak izan zituzten, bigarren eta hirugarren kaletik, hurrenez hurren.

Lehenengo luzea izan zen gogorrena, haizea kontrari izan baitzuten arraunlariak. Gainera, ontzien brankak behin eta berriz sartzen ziren uretan.

Luzearen amaierara, Getaria-Tolosako neskek iritsi ziren aurretik, eta zumaia-errekiko sei segundoko aldearekin eman zuten jardunaldiako zia boga bakarra.

Bigarren luzean, Getaria-Tolosako Urkabe trainerua oso ondo itzuli zen Kontxako badiara poparean, eta txandako aurkariekiko tartea handitzea lortu zuten neskek, helmugan olatu gainean sartuz.

Datorren hilaren 25ean, Euskadiko Txapelketan ariko dira, Lekeition.

↓ Denborak

LEHEN TXANDA

Orio. 14:25.44

Hondarribia. 15:40.76

BIGARREN TXANDA

Getaria-Tolosa. 13:27.98

Zumaia. 13:45.76

San Juan. 14:17.52

→ Laburrak

Menchu Galen koadroak, Aranburu jauregian

PINTURA › Menchu Gal margo-lari irundarraren koadroak izango dira Aranburu jauregian ikusgai. *Kolorearen poza* deituriko erakusketa datorren uztailaren 20an inauguratuko dute 19:30ean, eta irailaren 10era bitarte egongo da ikusleei zabalik.

Ginkana egingo dute datorren asteartean

GIZARTEA › Datorren asteartean, hilak 19, Tolosako haur eta gazteei zuzenduriko ginkana egingo dute. Bertan, Tolosara etorri diren sahararek ere parte hartuko dute. Tolosaldea Garatzen-ek eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Nura elkarteko kale hezitzaileek antolatutako ekimena izango da ginkanarena. 16:30ean hasi eta 19:00ak bitarte, Plaza Berrian ariko dira jolasean.

Carlos Peña 24 orduz ariko da igerian Oria ibaian

Esklerosi Anizkoitzaren aldeko 'Busti zaitetz' izeneko kanpainaren barruan burutuko du ekimena igerilari tolosarrak

I. Urkizu

Gaur 13:00etan hasi, eta larunbat eguerdira bitarte, Carlos Peña igerian arituko da Tolosan.

Esklerosi Anizkoitzaren aldeko *Busti zaitetz* kanpainaren barruan, Zerkausi azpitik irtengo

da, eta Berazubiko zubian dagoen balizarainoko ibilbidea eginez ariko da igerian, bihar eguerdiko 13:00ak bitarte.

Proba amaitzean, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkar-teak diploma emango dio Carlos Peñari.

Bar - Restaurante - Jantokia

Asteleña

Udarako denboraldiari hasiera ematen diogu terrazarekin batera:

- Plater konbinatuak
- Asteburuko menua
- Karta

Euskal Herria, 4 • TOLOSA
943 65 09 96

LEABURUKO OSTATUA

OGITARTEKOAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

tabernaren

11:15etik 23:30era egunero
Tfnoa: 943-67 42 77

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Korazonisten elizara sartzeagatik hiru gazte epaitu dituzte Donostian

Fiskaltzak 10 hilabeteko espetxe zigorra eta 2.000 eurotik gorako isuna eskatu du bakoitzarentzat

Asier Imaz

Fiskaltzak Tolosako hiru gazte-erentzat 10 hilabeteko espetxe zigorra eskatu du «desobediencia larria» egotzita. Horrez gain, «usurpazioagatik» eta «kalte materialak eragiteagatik», bakoitzari 2.000 eurotik gorako isuna jar-tzea eskatu du. Defentsa abokatu-erabat aurka azaldu da, hau da, zigorrik gabe hiru gazteak aske uzteko eskatu du.

Epaiketari amaitu duten gerta-kariak 2009ko abuztuaren 20an

gertatu ziren Tolosako Korazo-nisten elizan, Musika Eskolaren ondoan. Egun horretan, Ertzaintza eliza barrura sartu zen, eta hiru gazte identifikatu zituen kanpandorrean.

Aurrez, elizaren jabea den Oriamena SL-k salaketa jarri zuen epaitegian, euren jabegoko elizara jendea sartu zela esanaz. Atzoko epaiketan jakin ahal izan zenez, Oriamena SLri informazio hori Tolosako alkateordeak eman zion zuzenean.

Salaketa eskuan, abuztuaren 20an Ertzaintza sartu zen elizara. Atzo azaldu zuten, barnean barrikadak, likido irristakor bat eta kristal puskak aurkitu zituzten, «euren lana eragotzeko». Kanpandorrera igo eta hiru neska aurkitu zituzten bertan, hauek identifikatu eta elizatik atera zi-

tuzten, «erresistentziarik aurkitu gabe».

Hiru gazteek elizan arratsaldea igarotzen zeudela esan zuten, «kalean entzun genuen elizan gazteak zebiltzala eta bertara gerturatu ginen», gaineratuaz. Egote-zen zaizkien karguak ukatu egin zituzten, defentsa abokatuaren babesarekin.

Epaileak hiru gazteen, hiru ertzainen eta Oriamena SLko ordezkariaren hitzak entzun zituen epaiketan. Orain fiskaltzaren eta defentsa abokatuaren eskaerak aztertu beharko ditu, epaia emateko.

Defentsa abokatuaren esane-tan, 20 egun inguru hasi ditzake epaileak, baina ez da erabat ziurra noiz emango duen epaia. Fiskaltzaren eskariak ulergaitzak zi-rela ere gaineratu zuen, desobe-



Corazonisten eliza, Musika Eskolaren ondoan. HITZA

dientzia nahikoa ez eta desobe-dientzia larria eskatu izanagatik. Epaiketaren amaieran, Oriamena SLko ordezkariak bere aldetik, euren kalte ordainik ez zutela nahi esan zuen, nahiz eta epaileak epaiketa amaitua zegoela esan zion.

Tolosako hiru gazteak, azke-nik, ez ziren bakarrik egon Do-nostiako Justizia Auzitegiko are-toan. Eurenkin, hainbat gazte eta senide egon ziren. Horrez gain, hainbat tolosarren babesare-erabateko jaso zuten epaiketara joan aurre-tik.

VIII. HITZA Pilota Txapelketaren finalak iritsi dira

Tolosako Beotibar pilotalekuan 24 pilotari elkartuko dira larunbat goizean, 12 txapela lortzeko asmoz

A. Imaz

Hitzordua jarrita dago. Pilotariak eta pilotazaleak, galdu ezinezko zita dute Tolosako Beotibar pilo-talekuan bihar, hilak 16, 09:30etik aurrera. Goiz osoan zehar 6 final jokatu dira, bata bestearen jar-raian, atsedendirik gabe.

Lehenik benjaminak irtengo dira kantxara, ondoren alebinak, infantilak, kadeteak, jubenilak eta azkenik, nagusiak. Sari bana-keta final guztiak amaitu ondo-ren egingo da, 13:30ak inguruan.

Txapelketa 192 pilotarik hasi zuten, eta 24 bakarrik gelditzen dira jadanik, hau da, 12 bikote. Sei mailatan jokatzen dira finalak, eta euskualdeko nahiz Euskal Her-riko etorkizuneko pilotariak Be-otibarren egongo dira.

Pilotazaleen gozamena

Orain arteko HITZA Pilota Txapelketek oso harrera ona izan dute. Urtero-urtero, pilotarien se-

↓ Finalak

Bihar, Beotibar pilotalekuan
Iruretagoiena-Agirre (Benjaminak)
Zubeldia-Olano (Benjaminak)

Oiarbide-Arandia (Alebinak)
Erasun-Ugartemendia (Alebinak)

Barriola-Mendia (Infantilak)
Bakaikua-Erauskin (Infantilak)

Garaio-Aburuza (Kadeteak)
Urdapilleta-Iruretagoiena (Kadeteak)

Labaka-Unanua (Jubenilak)
Maiza-Oria (Jubenilak)

Artola-Irusta (Nagusiak)
Uretabizkaia-Aizpuru (Nagusiak)

nideez gain, pilotazale ugari joan ohi izan da partidak ikustera, Tolosara, Albizturrera edo lehiak jokatzaren diren lekuetara.

Tolosako Beotibar pilotalekuan gertatzen dena ere azpimar-ratzekoa da. Txapelketako parti-dez gain, finalak ere bertan jokatzen dira. Aurreko urteetan armailak lepo bete izan dira, bai bertantzat kantxako eserlekuak. Aurtengo finalek ere kutsu bera izan dezatela!

‘www.tolosandco.org’ webgune berria aurkeztu dute merkatariak

Bezeroak gertuago sentitzeaz gain, merkatarien arteko harremanak erraztu nahi dituzte

A. Imaz

Tolosako merkatari elkarteak, Tolosa&Co, ideia askorekin sortu zen iazko urte amaieran. Batzuk gauzatu dituzte eta besteak bide-an doaz. Elkarrekin webgune bat izatea hasierako asmo haietan sartzen zen. Ideia gauzatzeko hel-buruarekin gogotik aritu dira lanean, eta azkenean, «Eusko Jaur-larritza eta SPRIren laguntzei esker», herenegun aurkeztu zuten www.tolosandco.org webgunea. Hala eta guztiz ere, argi utzi nahi izan dute oraindik amaitu gabeko webgunea dela: «Euskarazko edukia uda amaierako prest



Tolosa&Co elkarteko kideak webgune berria aurkezten. A. IMAZ

egongo dira adibidez, oraindik landena amaitu gabe aurkitzen bai-ta».

Tolosandco.org alde batetik, be-zeroak saltzaileengandik gertua-egoteko bidea izango da, eta

bestetik, elkarteko kideen lan-dresna bilakatu nahi da. Izan ere, webgune honekin, Tolosa&Co-ko kide diren merkatariak, barne ko-munikaziorako tresna paregabea izango dute esku artean.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Uztaila, abuztua eta irailen etxebizitza alokagai dago Jacan eta Peñiscolan. Intere-sa dutenek deitu 635 73 70 43 telefono zenbakira.

ALEGIA
943 653 097

ISKIÑA
edaritegia
San Juan kalea 59

ETXEBERRIA
edaritegia
San Juan kalea 51

Irudia o Villabona



IREKI DUTE GARAGARDO AZOKA

Irrintzi Elkarteko ordezkariak atzo eman zioten hasiera 15. Garagardo Azokari. Lau egunez, garagardoa izango da nagusi Villabonan. Igandera bitartean, egunero 18:00etan zabalduko ditu ateak, eta edatekorik eta jatekorik ez da faltako. E.MAIZ

Irudia o Albiztur



FRONTOIA MARGOTZEN ARI DIRA

Albizturko frontoiaren margoketa lanak bukatzeaz daude. Gregorio Iraola alkateak azaldu duenez, «egoera nahiko aldebresean zegoen. 1993an egin zen, eta ordudunik ez da berrikuntzarik egin». Ezker paretak pintura harrotuta zuen. I.GARCIA

XXII. Joxean Tolosa Txapelketan 64 pilotarik hartuko dute parte

Kadeteen, gazteen eta nagusien mailako pilotariak ariko dira; gaur hasi eta irailaren 11n bukatuko da

Eneritz Maiz Amezketak

XXII. Joxean Tolosa Eskuz Banakako Pilota Txapelketa gaur hasiko da. Joxean Tolosa herriko pilotariak eskuz banakako txapela irabazi zuela hogeita bi urte bete-tzen direla eta, aurten ere, urterto antolatzen duten txapelketa

prest dute. Gaur hasi eta irailaren 11n bukatuko da.

Frontoi osoan eskuz banaka ariko dira pilotariak. Pilotari guztiak kadeteen, gazteen eta nagusien mailakoak dira. Kadeteetan eta gazteetan 24na pilotari izango dira parte hartuko dutenak. Nagusien mailan berriz, 16 pilotari izango dira.

Partida guztiak 18 tantotara jokatuko dituzte. Xalton Zabalaen hitzetan (maila handiko pilotariak datoz aurtengoa. Iaz pilotari batzuk Munduko Txapelketa joateko hautatuta zeuden eta ezin izan zuten txapelketan parte har-

tu». Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko txapel-dun eta txapel-dunorde askok har-tuko dute parte Amezketan ospa-tzen den izen handiko txapelketa honetan.

Lehen partidak, gaur

Gaur, hilak 15, Amezketako frontoi-an hiru partida jokatuko dituz-te. 22:00etan emango zaio hasiera XXII. Joxean Tolosa Txapelketa-ri. Kadeteetan, Erasun zizurkil-darra, Otamendi amezketarraren aurka ariko da. Gazteen mailan, Nazabal zaldibiarrek, Legarreta amurriarraren aurka lehiatu be-

harko du, eta gazteen mailako beste partida Aristimuño tolosa-rraren eta Imaz oiartzuarraren artekoa izango da.

Hilaren 16ean, larunbatean, 22:00 etan emango diete hasiera partidai. Kasu honetan ere hiru partida jokatuko dira. Kadeteetan, Chiapuso donostiarrak, Mu-rua ordiziarraren aurka ariko da. Kadeteetan, Mujika altzoarrak, Aranguren donostiarraren aurka erakutsi beharko ditu bere dohai-nak; eta Elustondo berrobiarrak, Unanua Lizarrakoaren aurka jo-katu beharko du bere partida.

Partidak irabazten dituen pilo-tariak aurrera egingo du, eta gal-tzen duenak berriz, etxerako bidea hartu beharko du. Astebu-ruro jokatuko dira partidak, Amezketako jaietako asteburuan izan ezik.

Transernio Txapelketako pilota partidak jokatuko dira bihar eta etzi

Bihar infantilek bi partida jokatu-ko dituzte; etzi, benjamin, alebin eta kadeteen txanda izango da

E. Maiz Aduna

Adunako VIII. Transernio Pilota Txapelketa aurrera doa. Bihar eta etzi, zazpi partida jokatu-ko du lehen partidari eta Amezke-tak Andoainen aurka ari beharko du bigarren. Igandean berriz, bost partida jokatu-ko dira 10:30ean hasita. Lehena benjami-nen mailakoa izango da, Zizurkil Inxurreren aurka. Alebinen mailan, Aduna Inxurreren aurka eta Aduna Zizurkilen aurka ariko dira. Azken bi partidak kadeteen izango dira: Zizurkil Herna-niren aurka eta Bidegoian Usur-bilen kontra lehiatuko dira.

ATE IREKIEN JARDUNALDIA

VILLABONAKO ERRAUSKETA LABE-BEILATOKIA
UZTAILAK 16 eta 17

Aurreko uztailaren 8an errausketa laber eta beilatoki berri bat ireki genuen Villabonan, horren bidez zerbitzu pertsonalizatuago bat emateko gogoia baitugu Aitzondo, Andoain, Tolosaldeko bailara eta inguruko jendeentzat.

Hori dela eta, VASCONGADA EHORZKETAK ate irekien jardunaldia egingo du instalazioak ezagutzeko interesa duten pertsona guztientzat 2011ko uztailaren 16 eta 17an Geure helburua zuekin giro atsegin batean elkartzea da, ingurune natural batean integratutako espazio batean. Era berean, bizilagun eta elkarten iritzia entzun nahi dugu, horrela hobetu eta haien beharretara egokitu ahal izateko. Zuen etorrera espero dugu. Gustu handiz arreta egingo dizuegu.

ZUEN ZAIN GAUDE!

LEIHO ISOLATZAILEAK

- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

Leihopro

Jai zoriotsuak pasa!

943 69 84 39

TOLOSALDEKO hitza
ETA LEITZALDEKO bertako egunkaria

egin zaitetz harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali zure datuak:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____ •NA: _____
•Lanbidea: _____ •Jaioteguna: _____
•Helbidea: _____ •Herria: _____
•PK: _____ •Tel: _____
•Posta elektronikoa: _____
•Kontu zenbakia: □□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalaren Babarazko, betetik, jakinarazten diguzur zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.M.-en fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erreaksiak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago iruzkitze, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontrako eginkeri eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.M.-Arabako etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidedun@hitza.info

Haur eta jubilatuek girotu dute hasiera

Atzo bezala, gaur ere haurrek aukera zabala izango dute; badira ere pilota partida eta musika saio aipagarriak

Imanol Garcia Alegia

Karmen jaietako hasiera ofiziala eman zioten atzo arratsaldean txupinazoarekin eta Txintxarriaren igoerarekin. Aurretik haurrek eta jubilatuek girotu zuten eguna. 30 lagun izan ziren goizeko jubilatuen martxan eta 60 hamaitakotakoan. Haurren bazkarian 80 lagun bildu ziren udaletxearen arkupetan. Kulkiren jokoetan ere haur ugari izan ziren jolasten.

Atzo goizean ezin izan zen haur parkea eta apar festa egin eta biharko utzi behar izan dute. 10:00etan irekiko da haur parkea eta 13:00etan izango da apar festa.

Gaur ere ekitaldi ugari izango dira. Besteak beste, gurasoek antolatzen laguntzen duten haur jaialdia. 17:00etan hasiko da, eta eskolako patioan egingo dute. Tailer asko izango dira aukeran: lepokoak, esku jokoetarako arrozko pilotak, aurpegiak margotzea, kareta... Altxorren bila-keta ere egingo dute herri osoan zehar. Hirugarren mailatik 16 urte artekoentzat. Sokatira, txingak, bolo jokoa... eta beste zenbait jolas egingo dituzte ere. 18:30ak aldera, plazan, merienda izango dute zain.

I. Pilota Txapelketa

Aurten lehenengo aldiz antolatuta du Intxurre elkarteak, udalak eskatuta, Alegiako Pilota Txapelketa. Gaur, 22:30ean hasita, jokatu dute finalak. Bi mailatan ariko dira pilotariak. Jubenil mailan Artolak eta Zabalak aurrean izango dituzte Barandiaran eta Erostarbe. Nagusien mailan, Otañendi eta Zubiri bikoteak Ezkurdi eta Telletxearen aurka jokatuko du.

Gaur ere aipatzekoak dira Txintxarri eta Txintxarri Txiki-ren kontzertua, 20:00etan, elizan; eta 25th Coming Fire eta Zea Mays taldeena, 00:00etan.



Udaletxearen arkupetan, atzo jubilatuek hamaiketako egin zuten eta haurrek bazkaria. I. GARCIA/E. MAIZ



Kulkiren arrantzaleen jokoetan gustura aritu ziren haurrak jolasean. I. GARCIA



Eskolako patioan jolastu zuten haurrek arrantzaleen kulturarekin zerikusia duten jolasetan. I. GARCIA



Santamaña auzoko festetan herri kirolariak eta herri afaria izango dira

I. Garcia Albiztur

Santamaña festak ospatuko dituzte igandean, izen bereko Albizturko auzoan. Herri kirolen erakustaldia eta herri afaria dira ekitaldi nabarmenenak. 12:30ean meza izango dute eta ondoren Malbadi trikitilariak girotuko dute goiza.

Arratsaldean herri kirolen artea izango da. 18:00etan hasiko da ekitaldia, eta Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolariak eta Juan Mari Belizosoro harri-jasotzailea ariko dira. Herri kirolarien erakustaldia eta gero, herri afaria egingo dute. Malbadi trikitilariak girotuko dute afaria.

→ Laburrak

Auzolanerako deialdia egin dute biharko

BERROBI Baserrietako bideak garbitzeko deialdia egin dute Berrobin biharko. 09:00etan elkartuko dira gaztetxearen ondoko aparkalekuan. Auzolanean egiteko asmoa dute. Udalak antolatuta, herritarren borondatea eta parte hartzea bultzatu nahi da, baserrietako bideetan sasia nagusitu baita. Desbrozadorak, eskuareak... eta abar eraman behar dira. Lanak amaitu ondoren, hamaitakotako egingo dute Bide Ona elkartearen.

Alliri auzoko jaiak antolatzeko bilera, etzi

TOLOSA Alliri auzoko bizilagun batzuk festak antolatu nahi dituzte. Ideia lantzeko bilera antolatu dute igande honetarako, hilak 17, 20:00etan Alliri tabernan. Antolatzailak deia zabaldu dute bilerara joateko.



saridunak



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **afari txartelak** ditu

Villabonan uztailaren 14, 15, 16 eta 17an ospatuko den

15. Garagardo Azokarako,

bi pertsonentzako **4 afari** zozketatuko ditugu.

Ostiraleko afarirako sariduna: **Joxe Arrospeide (Villabona)**
Izaskun Iraola (Bidegoian)
Lorenzo Goikoetxeaundia (lizartza)

Afariko txartelak leihatilan bertan izango dituzue





Mari Jose Atxukarro eta Arantxa Goikoetxea, Kontseju jatetxeko jangelan. M. UGARTEMENDIA

Elduaindarrek berriz ere zabalik dute herriko Kontseju jatetxea

Jatetxea aste guztian zehar egongo da zabalik, 09:00etatik aurrera; asteazkenetan atsedean eguna izango dute

Maier Ugartemendia Elduain

Ekainaren 17tik aurrera, elduaindarrek badute berriz ere kafea non hartu edo afari bat non egin. Duela hilabete eskas zabaldu zuten Kontseju jatetxea Marijose Atxukarro, berastegiarrak. Baina, bera ez da bakarrik aritzen lanean jatetxean, Arantxa Goikoetxea tolosarra eta Bakartxo Atxukarro ahizpa ere laguntzen aritzen baitira egunero. Atxukarroek esperientzia handia du zerbitzatzen, urte askoan aritu izan baita horretan, Goikoetxea, berriz, 29 urtez Amarozko Iruña jatetxearen buru izan da. Beraz, bien esperientziarekin ziur aurrera aterako dutela Kontseju jatetxea ere.

Badirudi elduaindarrak eta baita inguruko herrietako jendea ere Kontsejua irekitzeko desiatzen zeudela, Atxukaroren hitzetan hasieratik «jende asko» joan baita jatetxera. Bertarazten direnek «jatetxean festetan ere ez zutela hainbeste jende ikusi» esan diote. «Martxa ona» darama jatetxeak Atxukarro eta Goikoetxearen ustez. Hasieran jatetxea txukuntzen lan handia egin behar izan zuten arren, berastegiarrak senideen laguntza handia jaso du.

Guzti hau zerbaiten adierazgarri da. Izan ere, jatetxeko jangela-tik izugarritzko paisaia ikusi arren, eta ingurunean jolas lekua, parkea eta pilotalekua izan arren, bada jendea erakartzen duen beste zerbait ere. Atxukarroek eta Goikoetxeak baserriko produktuak erabiltzen dituzte, Atxukaroren familiakoek gazta, arrautzak, baratzeko produktuak... ematen dizkiete. Horrez gain, egunero jaten ez diren platerak ere sukaldatzen ditu Goikoe-

txeak txipiroiak, bakailoa, piper beteak... Eta, otorduaren amaieran etxeko postreak izaten baitira aukeratzeko, gainera herritar baten esnearekin egindakoak izaten dira. Menuak, plater konbinatuak, bokadilloak, karta eta asteburuetan menu bereziak eskaintzen dituzte Kontseju jatetxean.

Aste guztian egoten da irekita, 09:00etatik itxi arte; asteazkenetan izan ezik, atsedean eguna baita. Erreserbaren bat egin nahi izanez gero, edo informazioa eskuratzeko 943 68 33 27 telefonora deitu behar da.

Produktuak salgai

Herri txiki askotan bezala, Elduainean ere ez dago dendarik. Horregatik, Atxukarroek oinarritzko zenbait produktu salgai dauzka jatetxeko txoko batean. Gainera, arratsaldetan labean egindako ogia ere saltzen dute.

Egunean ordu asko bertan igaror arren, Atxukarrok oso «esperientzia polita» izaten ari dela baieztatu du.

Alurrekoak uda honetan festaz festa ibiliko dira

2011-2012 ikasturtean Alurr dantza taldean aritu nahi dutenek hil honetan dute matrikula egiteko aukera

M. Ugartemendia Ibarra

Alurr dantza taldeak amaitu du 2010-2011 ikasturtea, baina horrek ez du esan nahi udan atsedean hartuko dutenik, herriz herri ibiliko baitira emanaldia eskaintzen. Bestalde, jada 2011-2012 ikasturtea prestatzen ere hasi dira.

Dantza taldeak jadanik zabaldu du dantza eskolako 2011-2012 ikasturterako matrikula egiteko epea. Ibarako Kultur Etxean eska daiteke matrikula egiteko agiria, hil honetako, goizetan. Argibideak eta informazioa Kultur Etxean bertan jaso daitezke edo baita Alurren bulegoetan, astearte, ostegun eta ostiral arra tsaldetan. Baita 635 75 70 48 telefono zenbakira deituta eta www.alurr.net

↓ Alurr dantza taldea

UDAKO EMANALDIAK

- **Uztailaren 31n**, Baigorri, 17:30ean, plazan, *Soinaz* ikuskizuna eskainiko dute. Bertan 20 dantzari ariko dira, eta dantzak eta koreografiak eskainiko dituzte.
- **Abuztuaren 1ean**, Altxon, 22:30ean, plazan, Alurreko eta Altxoko dantza eskolako dantzariak ariko dira. Ordubeteko emanaldia izango da, eta azken bi urteotan prestatu dituzten dantzak eta koreografiak eskainiko dituzte. Guztira, 40 dantzari inguruk parte hartuko dute.
- **Abuztuaren 7an**, Ikaztegieta-

helbidean sartuta. Matrikula hil honetan egiten ez dutenek, irailean ere egiteko aukera izango dute.

Udako emanaldiak

Bestalde, Alurrekoek udan ez dute gelditzeko asmorik. Igande honetan bertan Baigorri eskainiko dute lehen emanaldia, eta uda honetako azkenekoa abuztuaren 28an egingo dute Berrobin.

Esan bezala, Alurr dantza taldekoak etzi Nafarroa Beherako Baigorri herrian ariko dira. 17:30ean, plazan, *Soinaz* ikuskizuna eskainiko dutelarik. 20 dantzari ariko dira bertan, eta dantzak eta koreografiak eskainiko dituzte. Hurrengo saioa, hurrengo egunean bertan egingo dute Altxoko jaietan ariko baitira, 22:30ean, plazan.

Ondoren, Ikaztegieta, Berastegin, Areson, Ibarra eta Berrobin ere ariko dira. Uda honetan, beraz, Alurr dantza taldearen emanaldiak ikusteko aukera izango da.

ko jaien barruan ariko dira, goizean zehar.

- **Abuztuaren 9an**, Berastegin, 22:30ean.
- **Abuztuaren 16an**, Areson, 22:30ean.
- **Abuztuaren 25ean**, Ibarra, San Bartolome jaietan ariko da. Emeterio Arrese parkeko plazan, 22:30ean. *Oinaz* ikuskizuna aurkeztuko du dantza taldeak. *Oinaz* ikuskizuna Alurr taldearen lan berria da, eta dantzariak ilusio handiarekin aurkeztuko dute herrian.
- **Abuztuaren 28an**, Berrobiko plazan, 18:30ean, *Labur* emanaldia

Hilberriak



JOSE ANTONIO MARTINEZ GOIKOETXEA

Aitona, zerutik maitasunaz begira iguzu eta erakutsi diguzun bidea jarraitzen lagun iguzu.

Bilobak: Alberto eta Cristina, Mikel, Eider eta Jon, Maialena eta Aitor, Manex, Eduarne, Carolina, Rebecca, Jessica.
Birbilobak: Garazi, Galder.

Tolosan, 2011ko uztailak 15

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

Alkateen elkarrizketak ▶

Ainhoa Ugalde ◊ Irurako alkatea

«Berdintasun batzordea sortu dugu, eta emakumeari garrantzia emango diogu»

Eneritz Maiz Irura

Ainhoa Ugalde izan da aukeratua hurrengo lau urteetan Irurako alkate izateko. Bildu koalizioak zortzi zinegotzi eskuratu ditu, eta oposizioan EAJko zinegotzi bat izango dute. Bulegoan «gustura eta pozik» hartu du HITZA.

Dagoeneko aste batzuk daramatzazue udalean sartuta. Zer moduz hasi zarete lan berrian?

Ondo. Hasieran dena batera iristen zaizu; informazio pila bat dator langile, teknikari eta aurreko alkatearengandik. Baina orain ondo, kokatzen hasi gara, batzordeak osatu, ... eta gustura nago ni behintzat.

Nolatan animatuzinen?

Taldea osatzen hasitakoan jendea bazegoen, baina inork ez zuen lehena izan nahi. Hutsune hori betetzeko beharra zegoen, eta baten batek jarri behar zuen. Niri se-

narrak eta familiak animatu ninduten erabakia hartzera. Bestela ezingo nuen aurrera jarraitu, eta horrela animatu nintzen.

Zein izango dira zuen hurrengo lau urteetako asmoak edo proiektuak?

Trinketean obran ari dira, eta guztia birmoldatu behar dute. Aurreko udalak proiektua mar txan utzi du, eta obra horiej jarraipena egingo diegu. Xare kalean etxebizitza tasatuak egin behar dituzte, eta horri ere jarraipena egin beharko diogu. Hutsik dauden etxebizitzak alokairua bultzatu nahi dugu. Zabalguneko proiektua ere badago, baina etorkizun batean izango da. Bideratuta daudenak jarraituko ditugu, eta gero diru aldetik begiratu beharko da nola gauden.

Eta zein da udalaren egoera ekonomikoa?

Ona, bueno, ez dago ezer ondo une honetan, baina ez daukagu

zorrik, eta alde horretatik, pozik gaude. Gurea baino okerrago dauden mila udaletxe hartuko zituzten. Esan behar da, eraikuntza aldetik diru sarrera asko izan direla etxeak egitearen ondorioz. Orain geldituta dago. Diru sarre-rak gutxitu egin dira, eta gastuak kontrolatzen hasi beharra daukagu. Instituzio handi horietan diru laguntzak eskatu beharko dira, eta gu ahal den guztietara eskaerak egiten saiatuko gara. Laguntzak ere murriztuta daude, baina eman edo ez, guk eskatu egingo ditugu. Hala ere, gauza batzuk nahi edo ez egin beharko dira.

Zein izango da udalaren funtzionamendua?

Lanak banatu egin ditugu. Zazpi edo zortzi batzorde sortu ditugu, eta bakoitzaren arloak mantenduz, batzorde bakoitzak bere lehendakaria du. Lanak banatu ditugu, eta asmoa denon artean lan



E. MAIZ

egitea da. Jendeak talde lana dela jakitea nahi dut, eta hemen guztietan artean hartzen direla erabakia. Adibidez, Berdintasun batzordea sortu dugu, eta emakumeari indarra eta garrantzia eman nahi diogu batzorde honen bidez.

Udal gehienek herritarren parte hartzea bultzatu nahi dute. Zuek ere horretan saiatuko zarete?

Bai, eta uste dut inguruko udale-txe guztietan ere berdina bultzatu nahi dela. Egia esan ohitura handirik ez dago, eta espero dugu herriak ondo erantzutea. Orain arte, ni barne, udaletxea hor egon

da eta lana udaletxeak egin behar duela pentsatu izan dugu. Guk irekia dagoela esan nahi dugu, eta denon parte hartzea behar dugula. Alde horretatik, lana egin beharko da.

Marimi Ugalde 16 urtez Irurako alkatea izan da. Zaila izango al da bere lekukoa hartzea?

Zaila izango da berak egin duena egitea, hori argi dago. Marimiren irudiak indar handia izan du. Bere laguntza dugu, eta gu saiatuko gara berak egin duen bezala egiten. Hobeto zaila izango da, baina berak bezala egiten badugu, ni gustura.

Joxe Mari Luengo ◊ Zizurkilgo alkatea

«Herritarrek udala urrun ez sentitzeko lan egingo dugu»

E. Maiz Zizurkil

Bildu koalizioa Joxe Mari Luengo zizurkildarrak hartu du herriko aginte makila hurrengo lau urteetarako. Zortzi zinegotzi eskuratu ditu Bildu koalizioak, eta oposizioan EAJko bi zinegotzi izango dituzte.

Lehenengo egunak dituzue udalean. Gogoz hasi zarete?

Hasieratik esan genuen bezala ilusio handiz eta gauzak aurrera ateratzeko ideiarekin sartu gara udalera. Gauza batzuk errazago eta beste batzuk zailago izango dira, baina lanean hasi gara. Batzordeak dagoeneko egin ditugu, eta bakoitzak gutxi gorabehera

bere lana hartu du. Pixka bat moldatzen eta martxa hartzen ari gara. Informazioa jaso eta buru belarri udalaren egoera ikusten ari gara.

Jende berri asko sartu da alkatetzetara. Nolatan animatu zinen paus hau ematera?

Herri gehienetan horrela izan dela esango nuke. Hasieran laguntzeko ideiarekin sartu nintzen, edo gehienak horrela sartu ginen. Azken momentuan niri esan zidaten ea alkatetzarako aurkeztuko nintzen. Hasieran nire kezkek izan nituen, baina aurrera egitea erabaki nuen. Gauza berria da, eta beste esperientzia bat izango da. Uste dut aberasga-



E. MAIZ

ria izango dela. Talde ona dugu, eta horrek asko esan nahi du. Denak gogoarekin daude, eta babsa sentitzen duzu.

Bozka aldetik ere babes handia jaso duzue.

Bai. Herriari ilusio handia egin diogula ikusten da, edo behintzat aldaketa nahi zuela. Babes osoa dugula ikusi dugu.

Batzordeen bidez egingo duzue lan, beraz.

Oraindik denbora gutxi pasa da, eta garai txarra da oporrak direla

eta. Ari gara, eta banatuak ditugu, baina irailetik aurrera hasiko gara gogor eta martxa onean.

Aurrera begira zein dira buruan dituzuen egitasmoak?

Udal irekia izatea denontzako, eta batzordeetan herritarrek parte hartzea nahi dugu. Batik bat hiri izango da. Guk gertu egon nahi dugu, eta herritarrek gurekin hitz egiteko aukera izatea nahi dugu. Parte hartzearen bidez, herritarrek zer nahi duten jakin behar dugu. Gainerakoan, alor asko

daude, baina oinarritzkoena hiri izango litzateke. Herritarrek udala urrun ez sentitzea. Bestetik, azkenaldian gazteentzako etxe gutxi eraiki da. Gazteak herrian geratzeko etxebizitzak egin nahi dira. Dagoeneko ari gara, eta aurrera aterako dela uste dut. Joxe Arregi plazan egingo dira 42 etxebizitza, eta guk uste baino jende gehiagok eman du izena.

Beste proiekturik bai esku artean?

Zizurkil Goian ere beharrak ikusten dira. Kirol aldetik ere, gazteei begira badugu proiektu bat, ea aurrera ateratzen dugun.

Zein da Zizurkilgo Udalak duen egoera ekonomikoa?

Auditoria egiten ari gara, eta emaitzaren zain gaude. Gutxi gorabehera badakigu, baina emaitza jaso nahi dugu. Ondoren, herriri jakinaraziko diogu zein egoeratan gauden. Udaletxe gehienak larrialdi egoeran daudela esango nuke. Foru Aldundian laguntzak eskatzen ahaleginduko gara, eta dugun zor ekonomikoa ere murrizten saiatuko gara.

Hirigunea eta landa gunea dituzue Zizurkilen. Landa eremua kontuan izango duzue?

Nekazaritzari begira ere batzordea osatu dugu. Bi gune oso diferente ditugu, behea eta goia. Biek moldatu beharko dugu.



23°
15°

GOIZA	OSKARBI
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	25°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

TXOTXONGILOAK

■ **Tolosa.** Euskal Herria plazan, gaur, *Karolino, printzesa eta dragoiaren burua* 19:00etan.

BAKARRIZKETAK

■ **Leitza.** Iruso tabernan gaur, Olatz Etxeberria eta Jone Gorostazu 22:30ean.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan bihar eta etzi, *Cars 2* filma ikusteko aukera 17:00etan eta 19:30ean. Astelehenean, ikuslearen eguna, 17:00etan.

JAIK

■ **Alegia.** Karmen jaiak. **Egitarau ofiziala, gaur:** 09:00etan herriko txistularien eta trikitilarien diana, eta 3x3 saskibaloitxo txapelketa eskolako patioan; 09:30ean Giroarte dultzaina taldearen diana; 11:00etan Iraunkorrik txaranga; 16:00etan umeen Santos Torneoko areto futboleko finala; 17:00etan haur jaialdia eskolako atarian; 19:00etan Trapu Zaharrak taldearen *Kanping renovakale* antzerkia; 20:00etan Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzen kontzertua elizan; 21:00etan zahagi ardoa; 22:00etan I. Pilota Txapelketa finala; 00:00etan 25th Coming Fire eta Zea Mays. **Egitarau ofiziala, bihar:** 09:00etan arrantza lehiaketa Ori ibaian 6 eta 14 urte bitarteko lehiakideentzat, eta herriko txistularien eta trikitilarien diana; 09:30ean Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana; 10:00etan haur parkearen irekiera (13:00etan apar festa);

11:30ean Loatzo musika eskolako emanaldia plazan; 12:00etan sagardo dastatzea, sardina eta txorizo errekin, eta Asier Unsain eta Irma Karrera-ekin trikiti doinuak plazan; 17:30ean umeentzako jolasak plazan; 19:00etan herriarren arteko toka txapelketa; 21:00etan herri afaria; 23:30ean Gose plazan; eta 01:00etan DJ Imanol. **Egitarau ofiziala, igandea:** 09:00etan Giroarte dultzaina taldeak alaitutako diana; 09:30ean kalejira berezia, lehenengo eta oraingo herriko txistulariek; 12:30ean Alegia-ko Sutarraren emanaldia plazan; 18:30ean herri kirolak Larraitz auzoko plazan; 19:00etan kale animazioa eta kontzertua Mc Jeara's Band-ekin; 23:00etatik 02:00etara dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin; eta 00:00etan Txintxarriaren erreketa. **Festa altematiboak, gaur:** 14:30ean herri bazkaria, eta ondoren, poteoa Mulambo taldearekin; 21:00etan zahagi ardoa; eta 02:00etan gau elektronikoa. **Festa altematiboak, bihar:** 21:00etan zahagi ardoa; eta 23:00etan Rock'n'Roll gaua

izango da Sumision City Blues eta Muturbeltz taldeekin. **Festa altematiboak, igandea:** 21:00etan zahagi ardoa; eta 22:00etan herriko bertsolariak. Segidan, Desordutan eta Keiran-en kontzertua. ■ **Asteasu.** Santamañako festak. **Gaur:** 20:00etan suzuria eta Tranpazuloren igoera; 21:00etan herri afaria, eta Laja eta Narbaiza; eta goizaldean txokolatete jatea. **Bihar:** 16:00etan Mus Txapelketa; eta 23:00etan Kupela. **Igandea:** 10:00etan Andazarretako Igoera; 11:30ean meza nagusia; ondoren, herri kirolak; 18:00etan Artzain Txakurren Txapelketa; eta gauean Laja eta Landakanda trikitilariak. **Astelehena:** 11:00etan meza nagusia; ondoren hamaiketako; 13:00etan herri kirolak; gero, Mañukorta eta Peñagarikano bertsolariak; 17:30ean kalejira; afaldu aurretik Tranpazuloren jaitziera; eta gauean, Izer, Narbaiza eta Lutxurdio trikitilariak izango dira. ■ **Albiztur.** Santamañako jaiak etzi: 12:30ean meza nagusia eta Malbadi trikitilariak; 18:00etan herri kirolak; eta ondoren herri afaria eta Malbadi trikitilariak.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

BIHAR

■ **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 67 32 74.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Jon Zabala Murua (Alegia).
Gaur 6 urte. Muxu potolo bat Nati, Joxe, Alazne eta Xuarren partetik.

Larraitz ileapaindegiaren partez: **Jai zoriontsuak!**



Larraitz auzoa, 2 behe • ALEGIA • Tel.: 943 65 55 33
Eskerrik eman nahi dizkizuet urte hauetako babesagatik

15. GARAGARDO AZOKA
UZTAILAREN 14tik - 17ra
Ondategia 18.00etatik 1.00era
VILLABONA

KONTUTAN HARTU BEREADIMENA



**EREMU
HANDIETARAKO
DISEINATU DUGU**

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

**P-508 SW
BERRIA**



Entzusketa zerbait berria marxiari
Entzusketa labe propozatzen